



7. AKTA

UDALA ERATZEKO BATZARRARI BURUZKO AKTA

Pasaian, udaletxeko batzar-aretoan, 2007ko ekainaren 16an, ondorengo zinegotzi hautatuak bildu dira, Hauteskunde-araudi orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. artikuluan ezarritakoa betez, eta udala eratzeko batzarra egitearren:

EAE-ANVko

MAIDER ZIGANDA POBLACION a.
IGNACIO GARMENDIA AGUIRREGABIRIA j.
OBDULIA LORENZO DE DIOS a.
ANDER POZA OLABIDE j.
MIREN EDURNE BASTARRICA BILBAO a.
IOSU BENGOCHEA ECHEVERRIA j.
ALVARO RICON RIVERA j.

PSE-EE/PSOeko

IZASKUN GOMEZ CERMEÑO a.
LORE SUAREZ LINAZASORO a.
VICENTE ICHASO GONZALEZ j.
JOSE BASTERRA MARFIL j.
JUAN MANUEL DOMINGUEZ LOPEZ j.

EAJ-PNVko

JOSE LUIS GOIKOETXEA GARMENDIA j.
JOAQUIN MARTINEZ VIDAL j.

PPko

ANGEL OLASO VILLALBA j.

EB-B/A-ko

XABIER POMBO GONZALEZ j.

EAKo

MIRIAM CANO PUY a.

Aipatu 5/1985 Lege Organikoaren 195. artikuluko bigarren atalean ezarritakoarekin bat, adin-mahaia eratu da, Angel Olaso Villaba eta Ander Poza Olabide jaunekin, zinegotzi hautatuetan zaharrena eta gazteena, hurrenez hurren. Batzarraren buru izan da Angel Olaso Villaba jauna eta adin-mahaiaren idazkari korporazioko idazkari Joseba Belaustegi Cuesta izan da. Halaber, Udalbatzarrean daude M^a Luisa Amiano Echarri a., Udal Diruzaina, eta Irune Soto Cotorro a. Kontuhartzaile lanetan.

Ondoren, adin-mahaiak hautetsiek aurkeztutako egiaztagiria eta nortasun-agiriak egiaztatu ditu, eskualdeko Hauteskunde Batzordeak udalera igorri dituen ziurtagirietan oinarrituz.

Halaber, idazkariak adierazi du bertan dauden zinegotzi hautatu guztiek egin dituztela Toki Jaurbidearen Oinarrien 7/1985 Legearen 75.5. artikuluan aipatzen diren adierazpenak

Aipatu Hauteskunde-araudi orokorraren Lege Organikoaren 108.8. artikuluan xedatutakoa betetze aldera, adin-mahaiak zuzenduta, zinegotzi hautatuek euren karguez jabetzeari ekin diote.

Adin-mahaiko Angel Olaso Villalba jaunak ondorengo galdera egin die:

“Hitz ematen duzu, zure kontzientziagatik eta ohoreagatik, fideltasunez beteko dituzula zinegotzi karguari dagozkion obligazioak, Erregeari leial, eta Konstituzioa gorde eta gordearaziko duzula Estatuaren arau nagusi gisa?“, EAE/ANVko Maider Ziganda Población, Ignacio Garmendia Aguirregabiria, Obdulia Lorenzo De Dios, Ander Poza Olabide, Miren Edurne Bastarrica Bilbao, Iosu Bengoechea Echeverría eta Alvaro Ricón Rivera zinegotziek honako hau erantzun dute euskaraz: “Lege espainol arrotza eta baztertzailak eta mahaiburuaren jarrera inposatzaile eta faxistak hala behartuta zin dagit”; PSE-EE/PSOeko Juan Manuel Domínguez Lópezek honako hau erantzun du: “Errepublikazalea naizen aldetik, Espainiar Konstituzioari men egiten diot, legeak hala agintzen duelako”; PSE-EE/PSOeko Bixen Itxasok legeak agintzen duelako egin dio men; PSE-EE/PSOeko José Basterra Marfilek eta Lore Suárez Linazasorok honako hau erantzun zuten: “bai, hitz ematen dut”; PSE-EE/PSOeko Izaskun Gómez Cermeñok honako hau erantzun zuen: “Hitz ematen dut Konstituzioari men egingo diodala”; EAJ-PNVko José Luis Goikoetxea Garmendiak eta Joaquín Martínez Vidalek hitza eman zuten Konstituzioari men egingo ziotela, baina legeak hala agintzen duelako; PPko Angel Olaso Villabak honako hau erantzun du: “Hitz ematen dut, nire kontzientziagatik eta ohoreagatik, fideltasunez beteko ditudala zinegotzi karguari dagozkidan obligazioak, Erregeari leial, eta Konstituzioa gorde eta gordearaziko dudala Estatuaren arau nagusi gisa”. EB-B/Ako Xabier Pombo Gonzálezek honako hau erantzun du: “Pentsamendu errerepublikazalearen ordezkari naizenez, hitz ematen dut” eta EAko Miriam Canok Konstituzioari men egingo diola zin egin du, baina legeak hala agintzen duelako;

Hori guztia jasota geratu da akta honetan.

Ondoren, zinegotzi hautatuen gehiengo absolutua batzarrera agertu dela egiaztatu ondoren, adin-mahaiak legez eratutzat jo du Udalbatza berria.

Mahaiaren idazkariak bertaratutakoei erakutsi die zenbaketa-akta, udal-kutxan dirutan nahiz bankuetan dagoenaren egiaztapena, bai Udalbatzarena eta bai erakunde autonomoena; eta baita udal ondareko ondasunen inbentarioa ere, data honetan itxia. Hori guztia, Tokiko erakundeen antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko erregelamenduaren 36. artikuluko 2. paragrafoan adierazitakoa betetze aldera.

Jarraian, alkatea aukeratzeari ekin diote. Horretarako, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoren 196. artikuluan ezarritako araudiarekin bat, alkate izateko hautagai hauek proposatu dituzte:

HAUTAGAIAREN IZENA TALDE POLITIKOA

MAIDER ZIGANDA POBLACION a.	EAE/ANV
IZASKUN GOMEZ CERMEÑO a.	PSE-EE/PSOE
XABIER POMBO GONZALEZ j.	EB-B/A
MIRIAM CANO PUY a.	EA

Bertaratutako zinegotziek hautaketari ekin diote, ezkutuko bozketaren bitartez; eta emandako botoak zenbatu ondoren, emaitza honako hau da:

HAUTAGAIAREN IZENA TALDE POLITIKOA LORTUTAKO BOTOAK

MAIDER ZIGANDA POBLACION a.	EAE/ANV	7 boto
IZASKUN GOMEZ CERMEÑO a.	PSE-EE/PSOE	6 boto
XABIER POMBO GONZALEZ j.	EB-B/A	boto 1
MIRIAM CANO PUY a.	EA	boto 1

Beste BI (2) zinegotziek zuri bozkatu dute.

Hautagaietako batek ere ez duenez gehiengo absoluturik lortu, EAE/ANVko zerrenda-buru MAIDER ZIGANDA POBLACIÓN zinegotzia izendatu dute alkate, udalerrri honetan herritarren boto gehien lortu duen taldea delako, aipatu Hauteskundearen legearen 196. artikuluko c) atalean xedatzen denaren arabera.



Ondoren, Maider Ziganda Población andrea alkate-karguaz jabetu da eta honako idazki hau irakurri du:

“Lehenik eta behin, eskerrik asko eta zorionak guregan konfidantza jarri duzuen guztioi. Gure taldeak pozez eta laneko gogoz hartzen du Pasaiaren gidaritza. Herritarrek emandako konfidantzari ez diogu hutsik egingo.

Azken lau urteetan gertatu ez bezala, Pasaitarren hitza errespetatu da gaur hemen. Baina, Pasaian ezker abertzaleak ordezkari izango duen moduan, inguruko zenbait herrietan udal ez demokratikoak osatzen ari dira une honetan. Alderdien Legea deitzen duten hori erabili dute herritarren borondateari iruzur egiteko.

Egoera bitxiak gertatu dira gainera. Gure zerrendako kidea den Obdu oraintxe zinegotzi kargua hartzen ikusi duzue, eta, ordea Batzar Nagusietara aurkezten ere ez diote utzi.

Eta ezin dugu ahaztu hori bera gertatu dela beste talde politiko oso batekin. Gure herrian hain zuzen ere, Pasaiako Sozialista Abertzaleak-ek 1000 herritarren atxikimendua jaso zuen arren, ezin izan du hauteskunde hauetan parte hartu. EAE-ANVko kideok gure elkartasun osoa adierazi nahi diegu, berriro ere apartheid politikoa pairatu behar izan duten pertsona horiei guztiei.

Esan bezala, egoera antidemokratiko hau salatu behar dut. Herriaren borondateari bizkar emanez ari direlako. Herritarrek beren botoekin esan dutena errespetatzen ez duten instituzioek ez dute baliorik eskubideen eta justizian oinarritutako etorkizuna eraikitzeko.

Euskal Herriak merezi eta behar duen prozesu eta konponbide demokratikoaren alde urrats tinkoak emateko garaia da, eta Udaletik ere, norabide horretan konpromisoak hartu behar ditugu. Euskal Herriak bere etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitzeko duen eskubidea tinko defendatuko dugu.

EAE-ANVko Euskal Herria eraikitzeko herrietatik lan egingo dugu. Baita Pasaian ere. Herriak eraiki behar ditugu Euskal Herria eraikitzeko. Horregatik gure konpromiso garrantzitsuena Pasaia izango da. Gu gidari izendatu gaituzue, baina denon artean eraki beharko dugu Pasaia berria. Elkarlanean ariko gara, eta pasaitarrok nahi duguna gauzatzen saiatuko gara. Pasaian bizi garen gizon zein emakumeon iritzia kontuan hartu eta diozuen obedituz zuzendu nahi dugu gure herria.

Badakigu arazoei nola aurre egin. Udala herritarrei zabalduko diegu, hau baita beraien etxea. Badakigu nola jokatu. Gehienak berriak gara, bai, baina argi dugu nora joan behar dugun. Pasaiaren alde lan egin duten ezker abertzaleko gizon zein emakumeak gurekin lanean jarraituko baitute. Beraiek eraikitako bidea jarraituko dugu guk, eta horretarako ezker abertzaleak duen indarra eta esperientzia metatu dugu. Hori izango da gure bultzada nagusia.

Amaitzeko, berriz ere esker beroenak gure herriaren alde lanean diharduzuen guztioi. Zuek gabe ez ginateteke gaur hemen egongo.



ABANTE PASAIA!”

Eta, beste gairik ezean, 12,30ean batzarra amaiturik, akta hau egiten dut, bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin.